

## SAILEKO EDITOREAREN HITZAURREA

George M. Jacobs, Anita Lie eta Siti Mina Tamah autoreen *Ikaskuntza kooperatiboa gogoetaren ikuspegitik* liburuaren aurren-aurreneko kapituluaren galdera hauxe egiten da: “liburu hau hizkuntzen irakaskuntzari ala azterketa sozialen irakaskuntzari buruz ari da?” Eta, areago: “ozeanoetako ur-maila igotzeari eta haur gosetuei buruz hitz egiteak gogaitu egingo al ditu hizkuntza berri bat ikasteko estutasunari ere aurre egin behar dioten ikasleak?”. Izan ere, egileek iradokitzen dute galdera horiek beren liburuaren esparrutik haratago doazela, baina ikaskuntza kooperatiboak gutxienez bi modutan lagun dezakeela diote. Lehenik eta behin, foro bat eskaintzen du ikasleek beren ikaskideengandik eta irakasleengandik ikas dezaten eta haiekin eztabaidatu dezaten ea zerbait egin behar duten. Bigarrenik, ikasleek zerbait egitea erabakitzen badute, bat-egiteak dakar indarra. Liburuko hitzaurreari hasiera ematen dion “gora kooperazioa” esapideak argi adierazten du autoreek liburu hau idaztean hartu duten atsegina; bakoitzak bere modura lagundu zuen ikaskuntza kooperatiboari buruzko xehetasun garrantzitsuak ematen dituen liburu zoragarri bat egiten, hizkuntza-irakasleek eta hizkuntza-ikasleek xehetasun horien gainean gogoeta egin dezaten.

1. kapituluaren ikaskuntza kooperatiboaren aurrekariak azaltzen dira, alegia, historia, kultur tradizioetan dituen sustraiak, oinarri dituen teoriak eta egin diren ikerlanak. 2. kapituluaren ikaskuntza kooperatiboaren oinarri diren zortzi printzipioak deskribatzen dira: interdependentzia positiboa; erantzukizun indibiduala; parte hartzeko aukera-berdintasuna; berdinen arteko interakzio gorena; talde-autonomia; taldekatze heterogeneoa; kooperazio-trebetasunen irakaskuntza; lankidetzaren balio gisa. 3.

kapituluan, ikaskuntza kooperatiboaren nondik norakoak zehazten dira, ikasleek eta irakasleek praktikan jartzeko moduari buruzko aholku praktiko ugari ere emanez, eta 4. kapituluan gai zail bati heltzen zaio: ikaskuntza kooperatiboa nola ebaluatu. Jarraian, 5. kapituluan, ikaskuntza kooperatiboa eta irakaskuntza kooperatiboa hausnarketan oinarritutako irakaskuntzarekin lotzen dituzte egileek, ikaslea ardatz duen paradigmaten testuinguruan. 6. kapituluan, logikari jarraikiz, irakasleek lankidetzan nola jardun dezaketen eta elkarrekin nola hausnar dezaketen deskribatzen eta eztabaidatzen da, haien ikasgaietan ikasleen arteko kooperazioa ahalbidetzen duten bitartean. 7. kapituluan bost hizkuntza-ikasgai deskribatzen dira; ikasgai horietan, irakasleek ikaskideekin lankidetzan aritzera animatzen dituzte ikasleak, eta 2. kapituluan nabarmendutako zortzi printzipioak ikasgai horietan nola erabiltzen diren aztertzen da. Egileek beste “gora ikaskuntza kooperatiboa” aldarri batekin amaitzen dute liburua, baina oraingoan liburuaren izenburu osoa gehituta: “gogoetaren ikuspegitik”; izan ere, esamolde hori oso egokia da, irakurleek xehetasun ugari irakurriko baitituzte amaierara bitarte.

*Ikaskuntza kooperatiboa gogoetaren ikuspegitik* lanean, egile bakoitzaren ezagutza zabalaz eta trebetasun handiez jabetuko da irakurlea, egileen beren hitzetan, ikaskuntza kooperatiboari buruzko beste zazpi liburu ere idatzi dituztenez, baina, hala ere, liburu hau “idazten gozatu dugu gehien”, nabarmendu dute. Diotenez, liburua idazten gozatu izanaren arrazoi nagusietako bat kapitulu bakoitzean txertatu dituzten hausnarketarako etenaldiak izan dira; espero dute, eta nik badakit, zeuk ere, irakurle, gozatua hartuko duzula kapitulu bakoitzeko une garrantzitsuetan planteatzen dituzten galdera labor eta bikainen gainean gogoeta egiten. Egileek nabarmentzen dutenez: “guk geuk ere ezin dugu biziraun H (hausnarketa) bitaminaren dosirik erregulariki hartu gabe.” Horixe baita, jakina, liburu hau biltzen duen *Reflective Practice in Language Education* sailaren muina.

Jardunean dauden eta prestatzen ari diren hizkuntza-irakasleentzat, hizkuntza-irakasleen hezitzaileentzat eta hizkuntzen

irakaskuntzaren eremutik kanpoko irakasleentzat eta irakasleen hezitzaileentzat oso erabilgarriak, erakargarriak eta argigarriak izango dira ikaskuntza kooperatiboari buruz liburu honetan deskribatzen eta eztabaidatzen diren xehetasunak, hizkuntzen irakaskuntzaren arlorako ez ezik, bizitzaren arlo guztietarako ere. Irakurleei eskaera bat eginez amaitzen dute liburua egileek: bihur ditzatela kooperazioa eta hausnarketa beren irakaskuntzaren eta beren bizitzaren oinarri. Liburuaren amaieran diotenez, “kooperazioak indarra eta adeitasuna dakartza; hausnarketak, berriz, zorroztasuna eta jakinduria. Orain, inoiz baino gehiago, irakasleek eta gainerako guztiek ez dute sekula izango horrelako ezaugarri nahikorik *Ikaskuntza kooperatiboa gogoetaren ikuspegitik* lana lagungarri izango zaie, zalantzarik gabe, irakasle guztiei eta hezkuntzako gainerako eragileei, kooperazioan eta hausnarketan (gehiago) oinarritzen diren profesional bihur daitezten bizitzan osoan zehar”.

Thomas S. C. Farrell  
*Reflective Practice in Language  
Education* saileko editorea